



GIZARTE-ERALDAKETARAKO HEZKUNTZAKO IKUS- ENTZUNEZKO EKIMENEN EBALUAZIOA

LABURPEN EXEKUTIBOA

**GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA**
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**
BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

2022ko irailaren 9a

Laguntzaile teknikoa:

 **Kualitate**
INSTITUTO

Aurkibidea



0. Sarrera	3
1. Ekimenen diseinua eta plangintza	9
2. Ikus-entzunezko materialak egiteko prozesua	12
3. Azken produktua	16
4. Ekimenen inpaktua	21

0.



Sarrera



Atal honetan, honako elementu hauek zehazten dira:

o.1 EBALUAZIOAREN HELBURU ETA IKUSPEGIAK

o.2 DOKUMENTUAREN EGITURA

o.3 EBALUATUTAKO EKIMENAK

o.4 METODOLOGIA EBALUATZAILEA



0.1 EBALUAZIOAREN HELBURUAK

Ebaluazioaren helburuak honako hauek dira:

- Euskadiko ikus-entzunezko Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza zertan den ezagutzea, lurraldean erreferentziazkoak diren ekimenak aztertuz.
- Ikus-entzunezko Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako ekimenen indarrak eta ahuleziak identifikatzea.
- Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako etorkizuneko ekimenak optimizatzeko gomendioak eta ikaskuntzak lortzea. Sektoreko erakundeentzako orientazioen gidaliburu edo eskuliburu bat egiteko bidean aurrera egitea.

Ebaluazioaren ikuspegiak dagokienez, honako hauek izan dira:

(H)ABIAN 2030

(H)ABIAN 2030 Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako Estrategiak, Euskadiko Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako eragileekin adostutako interes-irizpideak ezartzen ditu, horietan oinarrituta, ikus-entzunezko ekimenetan landutako eduki, gai eta ikuspegien egokitasuna ebaluatu ahal izateko.

Prozesua eta inpaktua

Ebaluazioak ekimenen sistematika, prozesu eta lan-metodologiak aztertu ditu, baina haiek xede-publikoengan eragindako inpaktuak hurbiltzeko ahalegina ere egin du.

Parte-hartzea

Ebaluazioa garatu da Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako ekimenetan esku hartzen duten eragile guztiekin elkarlanean: erakunde garatzaileak, kontraparteak, parte-hartzaileak, ikus-entzunezko enpresa kolaboratzaileak eta ekimenen xede-publikoaren zati bat.



0.2 DOKUMENTUAREN EGITURA

Ebaluazioak lau atal bereizten ditu:



EKIMENEN DISEINUA ETA PLANGINTZA	Proiektuak garatzen dituzten erakundeek ikus-entzunezko ekimenen oinarriak osatzeko darabiltzaten prozesuen gainean ikertzen da: helburuak, gaiak, esku hartzen duten eragileen mapa...
IKUS-ENTZUNEZKO MATERIALAK EGITEA	Ekimenen esparruan bideoak egiteko prozesua aztertzen da. Bideoak egiteko fase guztietan parte hartu duten pertsonen izandako palanka eta oztopoetan jartzen da arreta (gidoia, filmaketa, edizioa, etab.)
AZKEN PRODUKTUAREN ANALISIA	Sortutako ikus-entzunezkoetarako ezarritako helburuak zenbateraino betetzen diren ebaluatzen da. Ikuspegi tematikoa eta ikus-entzunezko teknika erabiltzen da horretarako.
EKIMENEN INPAKTUA	Ekimenek oro har sortutako inpaktu nagusiak hurbiltzen dira, nola ikus-entzunezko materialek hala material horiek egiteko prozesuan ikasitakoak sortutako inpaktuak.

Dokumentu hau txosten osoaren laburpen exekutibo bat da: atal bakoitzeko eduki nuklearrak biltzen dira bakarrik, ondorio eta gomendio moduan.



0.3 EBALUATUTAKO EKIMENAK

- Dokumentu hau irakurtzeko, garrantzitsua da kontuan hartzea **Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako 6 ekimen azertu direla errealitate eta ezaugarri desberdinei loturik** (helburuak, ibilbidea, aurrekontua, etab.), **guztiak ere ikus-entzunezkoak direlarik**.

Creasalud (Farmacéuticos Mundi)

Gatazkarik gabeko teknologia (Alboan)

Hilatxa (Paz y Solidaridad)

Dame 1 minuto (UNESCO Etxea)

Ikasleen Klaketa (KCD)

Guatemaltecas (Entreamigos)

- Ebaluazioaren analisisian **ondorio komunak** bildu dira ekimen guztietarako, baina **ondorio partzialak** ere bai, ekimen batzuei soilik dagozkienak. Bidezkoa den ataletan adierazi dira alde horiek.
- Oro har, nabarmentzekoa da **aztertutako ekimenek tamaina desberdinak dauzkatela, metodologia eta aurrekontuei dagokienez**. Ildo horretan, alde nagusia biren artean sortu da: **helburu nagusitzat sensibilizazioa dutenen eta, sensibilizazioaz gain, politikan eragiteko gaitasuna duten pertsonak sortzeko helburua ere dutenen artean**. Bigarren tipologiako ekimenek baliabide gehiago izaten dituzte normalean, eta hori kontuan hartzekoa da dokumentua irakurtzean.



0.4 METODOLOGIA EBALUATZAILEA

Lan-prozesuko fase nagusiak honako hauek izan dira:





Ebaluazioa egin da **ikerketa-teknika kuantitatibo** (galdesortak) eta **kualitatiboen** (elkarrizketak) mix baten bitartez. Hala, aztertutako proiektuen unibertsora estrapolatzeko moduko emaitzak ateratzeko aukera izan da, baita lortutako emaitzen gaineko azalpen zehatzak ere.

Orotara **150 pertsonak** hartu dute parte ebaluazioan, **horietatik 22k** elkarrizketen bitartez eta **128k** galdesorten bitartez

EKIMENEN DISEINUA	IKUS-ENTZUNEZKOEN ELABORAZIOA	IKUS-ENTZUNEZKOEN EMAITZAK	EKIMENEN INPAKTUA
6 elkarrizketa	11 elkarrizketa		
6 inkesta	-	Galdesortei emandako 122 erantzun	

Ebaluazioa indartzeko, **Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren** eremuan ikus-entzunezkoen komunikazioan espezializatuta dauden **5 erakundek** lagundu digute, eta **elkarrizketa bat** egin zaie hezkuntza-komunitatearen edozein ezaugarriren gaineko **hausnarketa orokor bat** biltzeko.

Lumatik

Quepo

Zazpiterdi

eIParlante

El Colectivo: Comunicación Popular

1.

Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako ikus-entzunezko ekimenen diseinua eta plangintza



Atal honetan honako elementu hauek aztertzen dira:

HELBURUEN DISEINUA

PUBLIKOEN HAUTAKETA

GAIEN HAUTAKETA

KONPETENTZIEN DEFINIZIOA

Semaforo-eskema bat erabiltzen da, eremu bakoitzeko ekimen multzoaren garapen-maila islatzeko.



HANDIA

ERTAINA

TXIKIA

2.1.1. FASEKO LABURPEN-KOADROA – DISEINUA ETA PLANGINTZA

<p>GARAPEN-MAILA ERTAINA</p>	<p>Helburuen diseinua</p>		<p>Helburuen eraikuntza klabe burokratikoan interpretatzen da estrategikoa baino gehiago, eta, horren ondorioz, batzuetan haren diseinuari ez zaio behar adinako garrantzia ematen. Klabe positiboan, erakundeak helburu bideragarriak diseinatzen ahalegintzen dira, erakundearekin bat datozenak eta bazkideekin partekatuak.</p>
	<p>Publikoen hautaketa</p>		<p>Publikoen hautaketa irizpide zehatzetatik abiatuta egiten da beti, erakundearen zein administrazio finantzatzailearen irizpideetatik abiatuta. Publiko zabalak bilatzen dira beti, arreta intereseko kolektibo kaltetueta (gazteak eta emakumeak, bereziki) eta efektu biderkatzailea duten eragileetan jarrita. Kolektibo espezifiko batzuekin lan egin ez izana da atzeman den gabezia bakarra (dibertsitate funtzionala, gorputzen dibertsitatea).</p>
	<p>Gaien hautaketa</p>		<p>Ekimenetan gai-aukera zabala jorratzen da, giza eskubideak, genero-ikuspegia eta ikuspegi tokikoa-globala ardatz nagusiak izanik. Alabaina, horiek aplikatzeko erabiltzen den ikuspegia sentsibilizatzailea da, eraldatzailea baino gehiago. Gainera, ezer gutxi garatu diren ikuspegi espezifikoak ere badaude (ekosoziala, dekoloniala...)</p>
	<p>Konpetentzien definizioa</p>		<p>Ekimen gehienek politikan eta teknologia- eta sormen-alorrean eragiteko konpetentziak lantzen dituzten arren, erdiak baino ez daukate jardun-proposamenak, eta haien helburuak ez dira beti lortzen.</p>



2.2 GOMENDIOAK – DISEINUA ETA PLANGINTZA


<p>Helburuak zehazteko epe zabalak finkatzea.</p>	<p>Komunikazio-ekimenaren eraginpeko testuingurua ongi ulertzea, xede-biztanleriaren kezkak edo interesak identifikatuz.</p>	<p>Proiektuaren mugak edozein izanik ere, xede-biztanleriarentzat parte-hartzean oinarritutako osagaiak txertatzen ahalegintzea ikuspuntu eraldatzaile batetik, haien baldintzak kontuan hartuz eta errespetatuz.</p>	<p>Aurrekontu-malgutasuna izatea</p>	<p>Heldu beharreko gaien buruzko ikus-entzunezkoen existentzia mapatzea, saturazioa saihesteko</p>
<p>Helburuak definitzea baterako sorkuntza batetik abiatuta, hasiera-hasieratik.</p>	<p>Helburuak zehazterakoan, ikuspegien checklist-a aplikatzea, ahal diren guztiak lantzen direla ziurtatzeko. Presentzia txikiena dutenetan zentratuz: ekosoziala, dekoloniala, etab.</p>	<p>Hezkuntza formalaren testuingurua oso kontuan hartzea, proposamena aurrera eraman ahal izateko eta lortu nahi den inpaktua eduki dezan.</p>	<p>Komunikazio-helburuak, sortu nahi den gizarte-eraldaketaren zerbitzuan egon behar du.</p>	<p>Plangintza-fasean lortu beharreko inpaktu soziala definitzea, ondoren, lortutakoa ongi neurtu ahal izateko.</p>
<p>Helburuen identifikazioan askotariko eragileak txertatzea, hainbat diziplinatakoak, proiektuan rol desberdinak dauzkatenak, bakoitza bere esperientzia-mailarekin Gizarte</p>	<p>Urte anitzekoak diren edo jarraipena duten proiektuetan, proiektuen helburuak birpentsatzea.</p>	<p>Zer ikuspegi eman nahi den eta zer frogatu nahi den kontuan hartzea, eta, diseinatu beharreko materialek, hartutako posizionamenduaren</p>	<p>Hasieratik, sare sozialen bidezko zabalkundea nola izango den ongi planifikatu eta aztertzea</p>	

2.



Ikus-entzunezko materiala

egiteko prozesua



Atal honetan honako elementu hauek aztertzen dira:

PRESTAKUNTZA-PROZESUA

LAN-METODOLOGIA

*BATERAKO
SORKUNTZA*

AUTONOMIA

*BESTE ALDERDI
BATZUK*

Semaforo-eskema bat erabiltzen da, eremu bakoitzeko ekimen multzoaren garapen-maila islatzeko.



HANDIA

ERTAINA

TXIKIA

2.1.2. FASEKO LABURPEN-KOADROA – EGITEKO PROZESUA


 <p>GARAPEN-MAILA ERTAINA</p>	<p>Prestakuntza</p>		<p>Prestakuntza integrala da, atal tematiko eta sentsibilizatzailea hartzen du aintzat, baina tekniko eta ikus-entzunezkoa bereziki. Prestakuntza egokitzat jotzen da, eta inpaktu positibo bat esleitzen zaio ikus-entzunezkoen azken kalitatean.</p> <p>Alabaina, zati tematikoan hobetzeko moduko arloak atzeman dira, bereziki, zeregin horri eskainitako denbora handitzeari eta irakasleak ezagutza eta baliabideak transmititzeko bitarteko gisa aprobetxatzeari dagokienez.</p>
	<p>Baterako sorkuntza</p>		<p>Proiektu guztietan, baterako erabaki-hartzean oinarritutako elaborazio-prozesuak daude. Deliberazio- eta eztabaida-saioak etengabeak eta aberasgarriak dira, eta adostasunean amaitzen dira beti. Hortaz, ikus-entzunezko gehienak elkarlanaren emaitza dira.</p> <p>Zehazkiago, zailtasunak izan dira parte-hartzea protagonista, kolektibo eta elkarte gehiagotara zabaltzeko eta hezkuntza-komunitatera neurri handiagoan iristeko.</p>
	<p>Autonomia</p>		<p>Bideoak egiteko askatasun handia izan da fase guztietan, bai gaiak hautatzeko, bai gauzatzeko modua aukeratzeko. Hortaz, parte-hartzaileei bete-betean egoteko moduko egiletza duten proiektuak lortu dira. Ikus-entzunezko enpresek, eta, bidezkoa izan denean, irakasleek, ongi bete dute beren eginkizun bideratzailea.</p>

2.2 GOMENDIOAK – EGITEKO PROZESUA

<p>Elkarlana bermatzea ikus-entzunezkoa egiteko prozesuaren fase guztietan. Erabaki-hartzeak taldearen mende egon behar du beti, eta ez erakunde laguntzaileen mende.</p>	<p>Produktuaren garapenean oreka bilatzea xede-biztanleriaren aldetik, ikus-entzunezko komunikazioan trebatuz, eta profesionalen aldetik.</p>
<p>Talde-lanaren eta zereginen antolamenduaren gaineko orientazioak ematea prestakuntza-prozesuan. Xede-taldeko pertsonekin konfiantzazko giro bat sortzea.</p>	<p>Mugimendu sozialak ongi ezagutzen dituzten ikus-entzunezko produkzioaren profesionalak hautatzea.</p>
<p>Ikus-entzunezkoa egiteko lanetan parte hartzen dutenei askatasuna ematea, goitik behera egin behar duen rol bideratzaile eta gidatzaile batetik.</p>	<p>Ikus-entzunezkoaren helburuak zehazteari garrantzi handiagoa ematea, haren diseinu eta elaboraziorako abiapuntu gisa.</p>
<p>Aldez aurretik ikus-entzunezkoetan parte hartzeko prest dauden kontaktuak ahalbidetzea, eta hurbiltze horretarako orientazioak ematea.</p>	<p>Ekintzari begirako prestakuntza integral (edukia-teknika) eta orekatu bat diseinatzea.</p>

Hizkuntza argi eta erraza erabiltzea.	Gidoiarekiko malgutasuna , funtsezko aktoreetako batzuen zirkunstantzia aldakorretara egokitzeko gaitasuna erakutsiz. Grabaketa-prozesua planteamendu zurruneekin ez baldintzatzea. Espazioak eta pertsonak errespetatzea.
Elaborazio metodologiak entsegu-errorerako eta egiten ikasteko prestatu behar du.	Mugimendu sozialekiko errespetua lehenestea , eta, horretarako, ikus-entzunezko erreminta edo haren xedea egokitzea haien premiei erantzuteko.
Aldez aurreko diagnostiko bat integratzea, gaiari eta entseguari buruzko eztabaida funtsezko osagai modura hartuta elaborazioaren hasieran.	Ikus-entzunezko produktuen parte-hartzea eta balidazioa , haietan ordezkatutako kolektiboen aldetik .
Prestakuntza- eta sentsibilizazio-prozesua lehenestea ikus-entzunezko produktuaren kalitatearen ginetik.	Edozein tokitan, antzeko produktu eta prozesuei buruzko erreferenteak bilatzea .

3.



Azken produktua



Atal honetan honako elementu hauek aztertzen dira:

KOLEKTIBO PROTAGONISTAK

MEZUAK

KALITATE TEKNIKOA

ZABALKUNDEA

Semaforo-eskema bat erabiltzen da, eremu bakoitzeko ekimen multzoaren garapen-maila islatzeko.





HANDIA

ERTAINA

TXIKIA

3.13. FASEKO LABURPEN-KOADROA – AZKEN PRODUKTUAREN ANALISIA

<p>GARAPEN-MAILA HANDIA</p>	<p>Kolektibo protagonistak</p>		<p>Ahalegin handia egin da bideoetan askotariko kolektiboak biltzeko, haien ikuspegiak modu naturalean sartuz, behartu gabe. Hainbat jatorri, adin eta identitatetako pertsonak beren testigantza eman digute... gaien harira bizi izan dutenaren berri emanez.</p> <p>Kontraparteek eta elkarte kolaboratzaileek parte hartu dute protagonistak biltzeko garaian, baina zenbaitetan zailtasunak izan dituzte profil jakin batzuk aurkitzeko garaian.</p>
	<p>Mezuak</p>		<p>Bideo gehienetako mezuek aditzera ematen dutenez, landutako gaiak ongi ulertu eta barneratu dira. Oro har tonu emozional eta enpatiko batean aurkezten dira, eta jendearengana iristen dira.</p> <p>Zenbait eszenaren gehiegizko dramatizazioa eta esajerazioa arrisku nagusiak dira ikasleek egindako bideoen artean.</p>
	<p>Kalitate teknikoa</p>		<p>Ikus-entzunezko materialen kalitate teknikoa oso modu positiboan balioesten da, parte-hartzaile amateurrek zein ikus-entzunezko sektoreko profesionalak egindakoen artean.</p> <p>Nolanahi ere, gainerakoekin alderatuta, kalitate teknikoari ez zaio lehentasun handirik ematen emaitzak balioestean, eta adostasuna izan da horretan.</p>

 <p>GARAPEN-MAILA HANDIA</p>	<p>Zabalkundea</p>	 <p>Zabalkunde-prozesuari garrantzi handia ematen zaio, piezak jakinarazi beharra dagoelako eta haiek egin dituztenentzat errefortzu positibo bat suposatzen duen heinean.</p> <p>Sare sozialak ikus-entzunezko produktuak zabaltzeko bide nagusia dira, eta ekitaldi presentzialak eta jaialdiak ere nabarmentzen dira, profesionalagoak diren bideoen kasurako.</p> <p>Hobetzeko eremuei dagokienez, zoritxarrez askotan ez da publiko gisa iristen ikus-entzunezkoetan agertzen diren kolektibo kaltetuengana. Elkarte-sareari gehiago lagundu beharko litzaioke, halaber, bideoak ezagutzera emateko garaian.</p>
---	--------------------	--

3

GIZARTE-ERALDAKETARAKO HEZKUNTZAKO IKUS-ENTZUNEZKO PROIEKTUEN EBALUAZIOA – AZKEN PRODUKTUA (IKUS-ENTZUNEZKOAK)



3.2 GOMENDIOAK – AZKEN PRODUKTUAREN ANALISIA

<p>Elkarte, mugimendu eta kontraparteekiko harremanei funtsezko garrantzi bat ematea, lortu nahi den kontakizunarekin bat datozen protagonistak lortzeko bitarteko gisa.</p>	<p>Ikus-entzunezko baliabideak aprobetxatzea gauzak bizipenetatik kontatzeko eta sentimenduetara iristeko.</p>
<p>Mezu argiak eta zuzenak zabaltzea, aldaketa eta ekintza positiboko proposamenen adierazgarri direnak.</p>	<p>Produktua pertsonalizatzea, xede-publikoen zuzeneko esku-hartzearen bitartez, beren burua islatuta ikusteko aukera izan dezaten.</p>
<p>Parte-hartzaileak prestatzea, gidoia eta mezuak diseinatzerakoan inpaktu mota desberdinak nola lortu ikas dezaten.</p>	<p>Elkarte-sarea eta administrazioa txertatzea produktuak kolektibo kaltetuen artean zabaltzeko prozesuan.</p>
<p>Ikasleei jarraibideak ematea, bideoetan, errealitate gogorak eta kaltetutako kolektiboak errespetuz eta orekaz lan ditzaten.</p>	<p>Ikus-entzunezkoak aurkezteko ekitaldiak sustatzea, parte-hartzaileek lanean beren burua errekonozitu eta berrespena jaso dezaten.</p>

3

GIZARTE-ERALDAKETARAKO HEZKUNTZAKO IKUS-ENTZUNEZKO PROIEKTUEN EBALUAZIOA – AZKEN PRODUKTUA (IKUS-ENTZUNEZKOAK)



Heldu beharreko gaiei buruzko ikus-entzunezkoen existentzia mapatzea, saturazioa saihesteko	Ikus-entzunezko produktuen bizitza baliagarria aprobetxatu eta luzatzea, sortu diren proiektutik haratago ere inpaktua sortzeko.
Kalitate teknikoaren alorreko espektatibak doitzea ez-profesionalek garatutako proiektuetan.	Azken produktuak bere hartzaileen artean informazio-saturazioa eragin dezala saihestea.
Egindako ekimenak zabaltzeko, erreferentziako webguneak erabiltzea.	Sare sozialen segurtasunari buruzko prestakuntza edukitzea.

4.

Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako ikus-entzunezko ekimenen inpaktua



INTERES-TALDEETAN/XEDE-PUBLIKOETAN

- Ekimenaren balioespena

- Inpaktuak ikasleengan, herritarrengan, familiengan, hezkuntza-komunitatean eta beste kolektiboengan...

- a) Ezagutzak
- b) Hausnarketa kritikoa-jarrerak
- c) Portaerak

ETORKIZUNEKO PROZESU ETA IKASKUNTZETAN

- Prozesu pedagogikoa

- Baliabideak, bitartekoak, kanalak
- Jardunbide eta ikaskuntza egokiak

Atal honetan honako elementu hauek aztertzen dira:

Semaforo-eskema bat erabiltzen da, eremu bakoitzeko ekimen multzoaren garapen-maila islatzeko.



HANDIA

ERTAINA

TXIKIA

4.14. FASEAREN LABURPEN-KOADROA – INPAKTUA

 <p>GARAPEN-MAILA ERTAIN TXIKIA</p>	<p>Ekimenaren balioespena</p>		<p>Aztertutako ekimenen balioespena positiboa da, argi eta garbi, nahiz eta horiek aztertzeko gaitasuna mugatua izan, begirada zatikatu eta partzial batetik egina. Nabarmentzekoa da ikus-entzunezko produktuen kalitatea, heldutako gaien garrantzia eta xede-taldeek horiek egitean izandako parte-hartzea. Nolanahi ere, horrelako prozesuetarako denbora gehiago izatea eta material eta erremintak hobetzea eskatzen da, eta ebaluazio formalak egin beharko liratekeela uste da.</p>
	<p>Inpaktuak ikasleengan, herritarrengan, familiengan, hezkuntza-komunitatean, beste kolektibo batzuetan...</p>		<p>Bildutako zantzen arabera, inpaktu positibo argia izan da, ezagutzen mailan eta heldutako gaien gaineko hausnarketa kritikoari dagokionez. Sortutako ezagutzak ikus-entzunezko produktuen sorkuntza ere hartu du aintzat batzuetan, eta alderdi horretan nabarmendu da portaera-aldaketarik funtsezkoena. Nagusiki, inpaktuko neurketak egiteko alorrean hobetu behar da. Inpaktua hobetzeko garaian kontuan hartu beharko lirateke, halaber, ekimenaren xede-publikoak zein izango diren argitzea hasieratik, haren garapenean parte hartu behar duten taldeekin alderatuta, eta horrelako ekimenei behar den jarraipena eman behar zaiela ere bai, lortu nahi den inpaktua sortu ahal izateko.</p>
	<p>Inpaktuak etorkizuneko prozesu eta ikaskuntzetan</p>		<p>Prozesu pedagogikoetan inpaktua positiboa da, baina nahiko mugatua nolanahi ere, azterketa-planetan ekimen horiek txertatzeko denbora eskasa izateak eragotzi egiten duelako ekimen horiek bete-betean eta behar den dedikazioarekin garatzea. Aipatzen da, halaber, horrelako ekimenen plangintza eta koordinazioa hobetzea komeniko litzatekeela, GKEen gainerako komunikazio-dinamikekiko artikulazioa errazteko. Horrelako ekimenen zabalkundea mugatuta dago, sare sozialen ahalmen osoa maneiatzeko zaila delako eta publikoak erakartzeko gaitasuna, berriz, urria, lehendik sentsibilizatuta dagoena izan ezik.</p>



4.2 GOMENDIOAK – INPAKTUA

Ekimenean sartutako taldeen parte-hartze aktiboa erraztea beren ahalduntze tematiko eta komunikazionala sustatzearren.	Ikus-entzunezkoari buruzko elkarrizketa erabiltzea sortutako inpaktuaren gaineko informazioa biltzeko.
Testigantza ikusaraztea , sentsibilizatzeko eta jarrera eta portaerak aldatzeko erreminta den heinean.	Gizarte-eraldaketa-ko ikus-entzunezko komunikazio-ekimeneen jarraipena sustatzea , haien inpaktua areagotzeko formula moduan.
Inpaktu-neurketak egitea , inpaktua zabaldu eta hobetzeko erabakiak hartzean oinarri moduan baliatzeko moduko ebidentziak edukitzeko.	